

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2020/2021 ikasturtea



ABADIÑO:

**PARTAIDETZA HERRITARRA ETA ESPAZIO PUBLIKOA
INKLUSIOA ETA BIZI KALITATEA ARDATZ**

Egilea: Irati Baceta Aguirre

Zuzendaria: Leire Etxezarraga Estankona

Leioan, 2021(e)ko maiatzaren 19(a)n

AURKIBIDEA

Abstract.....	1
Sarrera.....	2
1. Esparru Teorikoa.....	2
1.1. Parte Hartzearen Korrontek.....	2
1.2. Espazio Publikoa.....	3
1.2.1. Espazio Publikoaren Eta Komunitatearen Degradazioa.....	3
1.3. Espazio Publikoaren Eta Partaidetzaren Arteko Elkarreragina.....	4
1.3.1. Segurtasun Sentipena.....	4
1.3.2 Bizi Kalitatea.....	5
1.4. Partaidetza Inklusiboa.....	6
1.4.1. Partaidetza Inklusiboaren Ezaugarriak.....	7
1.4.2. Partaidetza Inklusiboa Eta Haurrak.....	8
1.4.3. Partaidetza Inklusiboa Eta Generoa.....	8
1.5. Beharrezko Aldaketa Sozioekonomiko Eta Urbanistiko-Fisikoak.....	9
1.6. Abadiñoko Partaidetzaren Inguruko Aurre-Ezagutza.....	10
2. Ikerketaren Helburuak Eta Hipotesiak.....	11
3. Metodologia.....	12
3.1. Diseinua.....	12
3.2. Partaideak.....	12
3.3. Datuak Eskuratzeko Tresna.....	13
3.4. Prozedura.....	14
3.5. Datuen Analisia.....	15
4. Emaidzak.....	15
4.1. Esparru Kuantitatiboa.....	15
4.1.1. Partaidetza.....	15
4.1.2. Inklusioa.....	17
4.1.3. Espazio Publikoaren Degradazioa.....	19
4.1.4. Bizi Kalitatea.....	19
4.2. Esparru Kualitatiboa.....	23
4.2.1. Partaidetza.....	23
4.2.2. Umeen Parte-Hartzea.....	24

4.2.3. Espazio Publikoaren Eboluzioa	25
5. Ondorioak.....	26
6. Ikerketaren Mugak, Zailtasunak Eta Etorkizuneko Ikerketa Posibleak	30
7. Erreferentzia Bibliografikoak.....	31

ABSTRACT

Ikerketa honek partaidetza eta espazio publikoaren elkarreragina aztertzen du, beti ere partaidetza inklusibotik abiatuz eta pertsonen bizi kalitatean dituen onurak aztertuz. Kasu honetan Abadiñon eginiko ikerketa izango da, zehazki, adin nagusikoak diren 107 abadiñarrek parte-hartu dute. Partaidetza, inklusioa, bizi kalitatea zein espazio publikoen irisgarritasuna eta egokitasuna gero eta gehiago erabiltzen diren terminoak izan arren, ikerketak jorrazteko bide luzea gelditzen dela erakutsi du.

Parte-hartzea, espazio publikoa, inklusioa, bizi kalitatea, herritarra

Esta investigación analiza la interacción entre la participación y el espacio público, partiendo siempre de la participación inclusiva y analizando sus beneficios en la calidad de vida de las personas. En este caso se trata de un estudio realizado en Abadiño en el que han participado 107 personas mayores de edad. A pesar de que los términos participación, inclusión, calidad de vida, accesibilidad e idoneidad de los espacios públicos son términos cada vez más utilizados, la investigación ha demostrado que queda mucho camino por recorrer.

Participación, espacio público, inclusión, calidad de vida, ciudadanía

This research analyzes the interaction between participation and public space, always starting from inclusive participation and analyzing its benefits in people's quality of life. In this case, it is a study carried out in Abadiño in which 107 people of legal age have participated. Although the terms participation, inclusion, quality of life, accessibility and suitability of public spaces are increasingly used terms, research has shown that there is still a long way to go.

Participation, public space, inclusion, quality of life, citizenship

SARRERA

Ikerketa honetan partaidetza inklusiboaren inguruan arituko da, bizi kalitatean dituen onurak aztertuz eta partaidetzak espazio publikoarekin duen elkarreragina ikertuz. Izan ere, parte-hartzea zein inklusioa jendartean gero eta gehiago erabiltzen ari diren kontzeptuak dira, baina askotan edukiz hustu edota partaidetza edo inklusioa izango litzatekeenetik interesatzen den zatia soilik hartzen da, kontuan izan gabe, partaidetza inklusiboa behar den bezala eginik oso onuragarria izan daitekeela espazio publikoarentzako eta baita pertsonen bizi kalitaterako ere. Horretarako, Abadiño herrian kokatu da ikerketa kuantitatibo-kualitatiboa. Hurrengo lerroetan ikusi ahal izango den bezala, inguruan egiteko eta pentsatzeko moduak aldatu beharra nabaria da.

1. ESPARRU TEORIKOA

Hurrengo lerroetan ikerlanaren marko teorikoa plazaratuko da, ikerketari beharrezko oinarri teorikoa emanaz.

1.1. Parte hartzearen korronteak

Parte-hartze herritarrekin hasiz gero, parte-hartzea “Egiteko batean besterekin batera aritzea; zerbaitetan norbaitekin bat egitea” bezala definitzen du Euskaltzaindiak (2020) eta herritarra aldiz, “Herri edo estatu bateko biztanle edo kidea, bereziki betebeharrak eta eskubideak dituen gizabanakotzat hartua”. (Euskaltzaindia, 2020, definizioa 2). Horrenbestez, esan daiteke parte-hartze herritarra, egiteko batean herri edo estatu bateko kideak batera aritzea izango litzatekeela.

Bi korronte nagusi identifikatu daitezke. Alde batetik, parte-hartzea ikuspegi liberal kontserbadoretik ulertuta legoke. Hauen ustetan, partaidetza instituzio eta mekanismo batzuetan oinarrituko litzateke, norbanakoen interesak errepresentatuko lituzketenak. Oro har, gaur egun ezaguna dugun demokrazia ordezkatzailan bukatuko litzateke, hau da, agintariak aukeratzea. Beraien esanetan, herritarren parte-hartze eta erabakimen handiagoak desordena ekarriko luke (Del Águila, d.g.; in Posadas, 2000).

Beste alde batetik, bigarren korronte nabarmena demokrazia parte-hartzaile zuzena litzateke. Herritartasunean oinarritzen da, herritarrek erabakimena dute eta beraien parte-

hartzearen bidez gobernatzen dute, hau da, herriak gobernatzen du eta ez dute gutxi batzuek herria gobernatzen (Del Águila, d.g.; in Posadas, 2000). Parte-hartzearen ulerkera honi egin zaion kritika ohikoena gaur egungo jendarte konplexuetan bideragarria ez izatea da. Alabaina, gure jendartea osatzen duten herri edo udalerriek praktikan jartzea ahalbidetuko lukete, sistema txikiak baitira estatuekin alderatuz (Posadas, 2000). Partaidetza komunitatearekin egin behar da, ez komunitatearentzat.

1.2. Espazio publikoa

Ikerketaren kontzeptualizazio teorikoarekin jarraituz, espazio publikoaren inguruan jardutea beharrezkoa da, izan ere, lan honetan parte-hartzea espazio publikoari loturik aztertuko baita. Espazio publikoa, elkarrekintza sozialerako eta erabilera anitzeko leku gisara uler daiteke, besteekin harremantzeko tokia da, jabetza publikokoa (Berroeta, 2012).

1.2.1. Espazio publikoaren eta komunitatearen degradazioa

Hasteko, errealitatearen azterketara joko da. Lekuei pertsonalitatea kentzean oinarritzen den hirigintza gailentzen ari da, aldi berean, komunitatearen izaera ezabatzen duena. Gero eta gehiago dira espazio publikoaren gehiegizko urbanizazioa, homogeneizazioa eta eredu estandarra kritikatzeko dutenak. Tokiek esanguratsuak izan behar dute komunitate batek berarekiko atxikimendua izan dezan, hau gertatzen ez denean ordea, oharkabean zeharkatzeko hiri eta herriak sortzen ari dira eta baita komunitateko saretzea hausten ere, norbanako indibidualistak elikatuz (Berroeta, 2012).

Berroetak (2012) “*ez-leku*” deritze identitatea galtzen duten espazioei, Tonuccik (2013, 30 or.) aldiz, “hiriak bere burua saldu du” dio. Hauek lur publikoaren pribatizazioaren afera aipatzen dute, eta baita pertsonen joera indibidualista zein kontsumista ere. Pertsonen ideologiek eta hiriak berak hartutako dinamikek elkar elikatzen dute.

Aurreko ideia berretsiz, Páramok et al. (2018) gaur egungo hirietako elkarrekintza sozialerako espazioen suntsiketa eta merkatu librearen eta kontsumo basatiaren agerpena azaltzen ditu, bizi kalitatearen beherakada nabarmena ekarriz. Kutsadura, berdeguneen desagertzea, espazio publikoaren pribatizazioa, komertzio txikiaren desagertzea, supermerkatu handien ezartzea, tokiko hirigintza eta espazioen suntsiketa,

besteekin harremantzeko leku falta, segurtasun eza, ziurgabetasuna e.a. dira joera honen ondorio. Oro har, degradazioari buruz hitz egitean, pribatizazioa eta jendarte kapitalizatua aipatu behar dira. Tonuccik (2013) azaltzen duen moduan, gaur egun, arazoei ere irtenbide pribatuak ematen zaizkie, erruaren fokua norbanakoarengan jarriz eta ez jendartean. Honek guztiak, eragina du norbanakoarengan. Esaterako, toki bat irisgarria ez denean, pertsona batzuei inplizituki leku horretan egoteko eskubidea ukatzen ari zaie. Inork ez du esplizituki esango, baina bertara sartzea ezinezko badu espazioaren ezaugarriengatik, bazterkeria dagoela ukazina da.

Horrenbestez, Páramok et al. (2018) aipatu bezala, hiriaren degradazioak, era berean komunitatearen eta parte-hartzearen degradazioa dakartza, izan ere, saretzeko, espazioarekiko atxikimendua sortzeko, esperientzia berri eta anitzak bizitzeko lekurik gabe uzten dute jendartea. Gainera, parte-hartzea murriztu denez hiritarrek instituzioengan duten kontrol maila ere gutxitu egin da, kontsumitzaile pasiboaren rola barneratu eta inguruan gertatzen denaren inguruko atxikimendua galduz.

1.3. Espazio publikoaren eta partaidetzaren arteko elkarreragina

Behin errealitatea aztertuta, espazio publikoak jendartearen partaidetza eta kohesioa sustatzeko dituen beharrak plazaratuko dira.

1.3.1. Segurtasun sentipena

Esan bezala, atxikimenduari dagokionez, espazioek pertsonentzat esanguratsuak izan behar dute. Espazioek pertsoneri helarazten dieten mezu inplizitua atsegina bada, konexioak eratuko dira pertsonen zein espazioen artean, non segurtasun sentipena izango den (Berroeta, 2012). Hari beretik, Tonuccik (2013) Berroetaren (2012) ideia berretsiz, espazio publikoan pertsonak egoteak, espazioa bizitzeak, espazio seguruak dakartzala dio. Jendarteko uste nagusituaren aurka, kamerek, poliziek edota bigilantziak ez dute espazioa seguruago egiten, espazioak bizigarriak direnean eta pertsonak bertan elkarrekintzan jarduten dutenean dira seguruenak. Hau da, espazio publikoan parte-hartzen denean.

Elgueta eta Moralesen (2010) aburuz, partaidetzak harremana du espazioarekin eta baita hiritar sentitzearekin ere. Umeei burututako tailerretan, norbere herria kontzienteki eta

partaide gisa analizatuz gero, beronen inguruko nahiak eta beharrak adieraztea errazagoa dela ikusi zuten. Hau da, ezaguna den espazioaren analisi kritikoa egitea izango litzateke, ezagutzen den espazioan errazagoa izanik beharrak zeintzuk diren identifikatzea.

Alabaina, hiri eta herriak gutxi batzuen ikuspuntutik pentsatzen eta egiten dira, hain zuzen besteekiko egoera pribilegiatu batean daudenek erabakitzen dute espazio publikoak nolakoa izan behar duen, eta era berean, nori duen eskubidea bertan parte-hartzeko. Ikusi izan denagatik, orokorrean, gobernuen jarrera hasieran aipatutako “parte-hartze” neoliberalarena da, ez dute nahi jendarteak beraien iritzia eman eta erabakitzeko eskumena izan dezan (Elgueta eta Morales, 2010).

Horrenbestez, alde batetik, espazio publikoa nolakoa izango den erabakitzeko parte-hartzea legoke, inklusibotasunaren bidez espazio irisgarriagoak eta bizigarriagoak egiteko, ondorioz pertsona gehiagok erabiliko dituzten gune horiek. Horrela, arestian aipatutako atxikimendua eta segurtasun sentipena areagotuko dira. Bestetik, espazioak, kaleak edo plazak bizi egin behar dira, herriek ez dute izan behar geratu gabe, presaka zeharkatzekoak, besteekin harremantzekoak baizik.

1.3.2 Bizi kalitatea

Ruedaren (2004) esanetan, bizi kalitatea izateko, lehendabizi, hezkuntza, osasuna, etxebizitza, lana eta baldintza materialak izan behar dira. Ondoren, ingurumenak kalitate ona izan beharko luke, airearen kalitatea, zarata eza edo uraren kalitatea. Hirugarrenik, senitartekoekiko harremana, harreman interpertsonalak, aisialdia edo denbora librearen garrantzia mahaigaineratzen ditu. Azkenik, errealitate sozio-politikoak, partaidetza soziala, segurtasun pertsonala eta juridikoa.

Bide beretik, espazio publikoan parte-hartzea eta beronen bizigarritasuna hertsiki loturik daude bizi kalitatearekin. Eragina dute aspektu ekologiko, biologiko, soziokultural, teknologiko zein estetikoek, baita bertan sortzen diren harremanek, emozioek eta sentimenduek ere. Norbere komunitatean parte-hartzeak pertenezia sentimendua dakar eta eragin positiboa du isolamenduaren prebentzioan eta bizi kalitate mailaren autopertzepzio positiboan ere (Páramo et al., 2018).

Bizi kalitatearekin jarraituz, Tonucciren (2013) ustez herri edo hirietako artelan, natur-gune edota berezitasunek eragin positiboak dituzte pertsonen arlo kognitiboan, gainera, edertasun hori guztia oinez joanda ikusteko pentsatuta dago, onura fisiko eta kognitiboak uztartuz.

Espazio publikoko partaidetzak elkarrekintza soziala ere ekar dezake (Schreiber eta Carius, 2016). Ezberdinen arteko saretzea sustatu eta bazterkeria egoerak ekiditeko ere balio dezake.

1.4. Partaidetza inklusiboa

Parte-hartze herritarraz aritzean, beronen subjektuaz ere jardun beharra dago, izan ere, ezin dakioket partaidetza deitu soilik gizon, zuri, dirudun eta helduek jarduten badute. Jendartearen zati txiki baten errepresentazioa baino ez bailitzateke izango. Inklusibotasunaren arloan partaidetzak eta espazio publikoak, bata bestea baldintzatu dezakete. Hau da, partaidetza ezak espazio publiko ez inklusiboa betikotu dezake, baldintza sozio-ekonomiko-kultural zehatzak dituzten pertsonen partaidetza soilik bermatuz eta ondorioz, jendartearen zati txiki batek denongan eragiten duten erabakiak hartuz. Aldi berean, espazio publiko ez inklusiboak parte-hartzeko oztopoak jartzen dizkie zenbait kolektibori. Eztabaida publikoan denek izan behar dute ahotsa eta hori bermatu ahal izateko, kontuan izan beharko dira klasea, generoa, arraza, jatorria, hizkuntza, aniztasun funtzionalak edota kapital kulturala (Martínez eta Nicolas, 2016).

Tonuccik (2013) kolektibo zapalduak herria bizitzeko duten eskubidea aldarrikatzen du, langile auzoak politak izatekoa, pertsona guztientzako irisgarriak, ederrak... Hau da, herriak pertsona guztiak kontuan hartu behar dituela. Schreiber eta Cariusen esanetan (2016) hirigintzak eta elkarrekintzarako diseinatutako espazio publikoek hiri eta herrien inklusibotasunean lagun dezakete.

Komunitate baten inklusiorako diseinatutako espazioek eta partaidetza prozesuek, errealitate denak kontuan izanik, Sarrionandiaren (2015) *plaza hutsa* eratuko lukete. Honela dio:

“Imajina oso argia da: plaza bat hutsik, non herritarrak elkartuko diren egunero, denon arazoak soluzionatu nahian. Plaza horretan ez dago Jainkorik, ez dago erregerik, ez dago bankurik, ez dago armadarik, ez hizkuntza zuzentzailerik. Jendea batzeko espazioa

besterik ez da, denok parte hartzeko modukoa, eta bakoitzak nahi duena esatekoa. Igoalen arteko bilera da, herritarren biltzarra. Gizarte konplexuan, imajina bat da hori, jakina, eredu ideal bat” (Sarrionandia, 2015, 62 or.).

Utopia honetara bidean, herritarren aktibazioa behar da, erabakimena izan eta inplikaturik dauden herritarrak behar dira. Horretarako, nola ez, baldintza egokiak ere sortu behar dira, pertsona guztiek ez baitituzte aukera berak partaidetzan aritu ahal izateko. Lehendabizi, kolektibo guztiak subjektu aktibo bezala ikusi behar dira, ezin daiteke inklusiorako bidea hasi, hasieratik talderen bat baztertuz.

1.4.1. Partaidetza Inklusiboaren ezaugarriak

Alde batetik, ahalik eta herri inklusiboena lortzeko bidean lan egin beharra dago. Kontuan izanik ez dela egun batetik bestera egiteko lana, traba guztiak kendu bitartean partaidetza prozesuak inklusibotasunetik egiten saiatu behar da, hots, hasieratik jendarteko aniztasuna kontuan hartuz prozesua planifikatzea. Benetako *plaza hutsak* sortzen saiatu behar da, eta horretarako, espazio publikoaz gain, partaidetza ere inklusibotasunetik pentsatu behar da. Gaitasun ezberdinetara egokitutako informazio ulergarria eskaini behar da, informazio bera, baina modu ezberdinetan jaso: letraz, ahotsez edo piktograma bidez, esaterako. Horrez gain, partaidetza prozesu antolatuetan, helburuak ez dira aurrez ezarrita egon behar, prozesuan jardungo duen komunitateak erabaki behar du zein den norabidea (Marchioni eta Morín, 2016).

Partaidetzak ez du karga bat izan behar pertsonentzat, partaidetzak suposatzen duen esfortzua pertsona askoren artean banatu beharko litzateke (Marchioni, 1999). *“Muchas personas en poco y no pocas personas en mucho”* (Ahedo eta Telleria, 2019, 15 or.). Maila orekatuan lana banatuz, mundu guztia senti daiteke prozesuaren partaide. Era berean, Marchionik (1999) ezinezkotzat du mundu guztiak uneoro maila aktiboan jardutea, alabaina, bereziki garrantzizkotzat jotzen du, prozesuak edo taldeak sartu nahi duen edozein pertsona berrirrentzako irekiak izatea. Hau da, malgutasuna eta jarrera irekia ezinbestekoak dira. Horrez gain, egileak talde espezializatuak edo “jakintsuen taldeak” ez eratzea gomendatzen du, errealitatearen ikuspegi orokorra lortzeko talde anitza proposatuz.

1.4.2. Partaidetza inklusiboa eta haurrak

Historikoki partaidetza prozesuetatik baztertu direnak haurrak izan dira. Tonucci (2013), ordea, ez dago ados, horregatik, haurra parametro gisa hartzen du espazio publikoa eta bertako parte-hartzea aztertzeko, haurra erabakiguneetatik kanpo utzi izan baita normalean. Hau da, haurraren¹ begietatik ikusten du hiria, baina agente ezberdinen inplikazioa aztertzen du:

“[...] gure eztabaida politikoan haurra txertatzea lortzen badugu, umeei buruz, alkatearekin hitz egin ahal badugu, udaltzainekin, kontularitzako buruekin, udaleko ingeniariekin, ospitaleko medikuekin, jatetxe eta tabernetako jabeekin, irakasleekin, gurasoekin... denok irabazten ari garela. Zalantzarik ez, emaitza txikia da baina etorkizuna eraikitzen hasteko modua da“ (Tonucci, 2013, 116or.)

Ohiko joera da partaidetza guneetan haurrak kontuan ez hartzea, ohartu gabe, jendartearen zati handi baten potentzialtasuna galtzen dela bidean. Haurrek beste begirada batez helduek ikusten ez dutena plazaratu dezakete.

Kolektibo guztien partaidetza babesten du, pertsona denek, sexu, arraza, adin, pentsaera e.a. ezberdinak izanik ere, iritzia emateko aukera eta erabakimena izan behar dutela, ez soilik bizitzako une jakin batzuetan, bizitzako arlo guztietan baizik, ume-umetatik hasita. “[...]Demokrazia ezin daiteke irakatsi, bizi egin behar da.” Dio Tonuccik (2013, 106), demokrazia herritarren parte-hartze ariketa bezala ulertuz gero, “*parte-hartzea ezin daiteke irakatsi, bizi egin behar da*” ulertzera hel daiteke. Umeek txikitatik partaidetza aktiboa zer den ikasten badute, hiritar oso tratatuak izanik, etorkizuneko hazia landatuko da, inklusibotasunaren bidean.

1.4.3. Partaidetza inklusiboa eta generoa

Espazio publikotik eta partaidetza publikotik baztertutako beste kolektibo bat emakumeena izan da. Genero ikuspegitik, kontuan izan behar da historikoki espazio publikoa gizonezkoek menderatu dutela, ondorioz, gizonezkoek errazagoa zaiela espazio

¹ Tonuccik (2013) haurrak ez dituela hiritarraren eskubide denak dio. Boto eskubiderik ere ez dute, horregatik, gobernuek ez dituzte aintzat hartzen politika publikoak edota espazioak antolatzerakoan. Bere ustez, pertsona guztiek jaiotzetik izan beharko lukete boto eskubidea, jendartean kontuan hartuak izan daitezkeen. Horregatik, haurren begietatik hiria begiratzuz, jendarteko kolektibo guztientzako hiriak egin daitezkeela uste du.

publikora salto egitea. Martínez eta Nicolasen ustez (2016) partaidetza espazioetan emakumeak egote hutsak ez du partaidetza inklusiboa ekarriko, gizonezkoak ohituta baitaude espazio publikoa okupatzera eta partaidetzarako moldeak bere eginak dituzte. Gainera, emakumeek zenbait oztopo gehigarri dituzte gaur egungo jendartean. Ondorioz, partaidetza prozesuetan kontuan izan beharko dira emakumeen kargu uzten diren zaintza lanak. Egokiena zaintza lanak sozializatzea izango litzatekeen arren gaur gaurkoz, berehalako soluzioak haurtzaindegi zerbitzua ematea edota zaintza eta partaidetza uztartu ahalko diren espazioak eskaintzea izan daitezke.

Esan bezala, oso maskulinoa izan den eta den partaidetza publikoaren esferan, pertsona guztien ahotsak balio bera izan dezan saiatu behar da, zaintza eta harreman afektiboek garrantzia eman, eta giro lasai eta abegikorra sortu. Amaierako helburua Sarrionandiak (2015) proposatzen duen plaza hutsa izan beharko litzatekeen arren, utopia horretara bidean, kolektibo zapalduak soilik osatutako partaidetza espazio ez mistoak ere gakoak izan daitezke. Esan bezala, partaidetza gaur gaurkoz ez da espazio neutrala, ondorioz, talde batzuk ez dira seguru sentitzen beraien iritzia emateko. Horrenbestez, partaidetza era guztiak onuragarritzat jo behar dira, erritmo, modu eta inplikazio ezberdinak, hain zuzen (Marchioni, 1999).

1.5. Beharrezko aldaketa sozioekonomiko eta urbanistiko-fisikoak

Lehenik eta behin, erabakiguneetara iristeko, bertan egoteko, eta parte-hartzeko baldintza ahalik eta egokienak jartzen saiatu behar da. Horretarako, partaidetza eta herria begirada inklusibotik begiratu beharra dago. Schreiber eta Cariusen aburuz (2016) espazio publikoko aldaketa fisikoak aldaketa sozialekin batera egin behar dira. Aldaketa fisikoen artean berrizte lanak, argiztapena edota higiezinaren gaineko kontrol publikoa aipatzen dituzte, azken hau etxe hutsen zenbatekoa txikitze aldera. Ikuspegi sozialetik enplegu eta kultur ekimenak bultzatzea, kohesioa bultzatuko duten espazio publikoak sortzea edo lehen zeudenak eraldatzea proposatzen dute, besteak beste.

Espazio publikoan egin daitezkeen esku hartzeetan hurrengo keinu txiki eta ekonomikoek elkarrekintza sustatu dezaketela diote: “[...] instalar bancos para sentarse, ofrecer sillas portátiles, cerrar calles al tránsito de coches y renovar el pavimento para alentar el tránsito

peatonal” (*Schreiber eta Carius, 2016, 312 or.*). Horrenbestez, espazio publikoa irisgarria izan behar da, pertsona eta kolektibo ezberdinen arteko elkarrekintza sustatu behar du eta segregazioa alde batera utziz herritarren arteko nahasketa bultzatu behar da.

Hari beretik, Ahedoren eta Telleriaren (2019) ustez, zenbait gako daude partaidetza indartzeko. Hasteko, auzoen beharrak ase behar dira ikuspegi urbanistiko batetik, irisgarritasuna bermatuz, pertsonentzako toki esanguratsuei zentzua emanez eta adin ezberdinetako pertsonen beharrei erantzunez. Bigarrenik, elkarrekintza komunitarioa gertatzeko moduak aurkitu behar dira, bazterkeria egoerarik egon ez dadin bermatuz. Hirugarrenik, zaintza komunitarioa erdigunean jarri behar da. Ahedo eta Telleriaren (2019) esanetan, gure kulturaren parte izan den auzolanak, gaur egun norbanakoaren arazoetatik, afera horiek kolektibizatzerara pasa behar du.

Hau guztia egin ahal izateko, herritarrek mugimenduan egon behar dute, hau da, alde batetik, partaidetza dinamika propioak egon behar dira eta espazio publikoaren gaineko kontrola berreskuratu behar da, baina beste alde batetik instituzioekiko kontrol maila ere areagotu behar da, eskakizunak egin eta herritarren beharrak asetzerara behartu behar dira instituzioak. Bi prozesuek pertsonen bizi kalitatea hobetuko lukete, herritarrek subjektu aktibo eta antolatu izanik. “Sin participación no hay proceso, no hay cambios reales o, mejor dicho, los cambios siempre serán el producto de las decisiones de otros, nosotros seremos simples receptores de las consecuencias de estas decisiones” (Marchioni, 1999, 16 or.). Partaidetzak ahotsa izatea esan nahi du, erabakiguneetan egotea eta erabakiak hartzea. Egoteko eta egiteko erak eraldatzea esan nahi du, boterearen gaineko kontrol handiagoa izatea eta herritarren nahiak errespetaraztea.

1.6. Abadiñoko partaidetzaren inguruko aurre-ezagutza

Ikerketari jarraipena emateko, aztertutako marko teorikoa errealitate hurbil eta konkretu batera eramatea beharrezkoa da. Horregatik, ikerketa lan hau Abadiñon kokatuko da, herri bateko pertsonen eta espazioen arteko hartu-emanen arteko dinamikak aztertu asmoz.

Abadiño udalerrak (Durangaldea, Bizkaia) 7722 biztanle ditu² (Abadiñoko Udala, 2020), horietatik 6289 dira 18 urtetik gorakoak. Herria hamabi auzok osatzen dute: Amaitermin, Astola, Gaztelua, Gerediaga, Lebario, Irazola, Traña-Matiena, Mendiola, Muntsaratz, Sagasta, Urkiola eta Zelaieta. Traña-Matiena, Zelaieta eta Muntsaratzen bizi da biztanleriaren gehiengoa, besteak baserri auzoak edota landaguneak izanik (Abadiñoko Udala, d.g.).

Abadiñoko instituzioetako parte-hartzeari erreparatuz gero, 2020an 30.000 euroko aurrekontua ezarri zen herritarren artean, parte-hartze prozesu baten bidez diru horrekin zer egin erabakitzeko. Orotara, 35 proposamen aurkeztu ziren eta horietatik hamahiru heldu ziren bozketara, udalak zenbait arrazoigatik aukeratuta. 616 pertsonak bozkatu zuten zortzi eguneko epean. 572k on-line bozkatu zuten eta 44k aurrez aurre (32 boto baliogabetzat jo ziren) (Abadiñoko Udala, 2020). Legebiltzarreko 2020ko hauteskundeetan abadiñarrek izandako parte-hartzeari erreparatuz, 3.264 pertsonak parte-hartu zuten (Anboto, 2020). Beraz, esan daiteke, aurrekontu parte-hartzaileetako zifra ez dela bereziki esanguratsua eta abadiñar askok ez zutela beraien iritzirik eman.

Herriko elkarte eta taldeei erreparatuz gero, Abadiñon zenbait elkarte eta antolakunde aurki daitezke: Talde Batuak eta Iluntze dantza taldeak, Katalamixon Aisialdi Elkartea, Gaztetxea, Gazte Asanblada, Jai Batzordeak, Auzo Elkartek, Done Zezili Abesbatza, Banarte Antzerki Taldea, Hemendik Harantz errefuxiatuen aldeko elkarteak, De Norte a Sur (Andaluziako folklorea), Geredixa Mikologia Taldea, Geu Be (Beharrian bereziak dituzten Durangaldeko familien elkarteak), Gogaikarri Bertso Eskola, Musikariak, Txanbolin Txistu Taldea, Emakume taldea, Izpilikuak Talde Feminista e.a. Esan daiteke, Abadiñar batzuk prest daudela elkar saretu eta proiektu amankomunak egiteko. Hala ere, proiektu horien arteko elkarrekintza ez da oso handia izaten, hau da, bakoitza bere esparrura mugatu ohi da.

2. IKERKETAREN HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

1. Abadiñoko herritarrek espazio publikoan duten parte hartze maila neurtzea, honen zergatiak aztertuz.

² 2020ko urriaren 15eko datua.

- 1.1. Abadiñoako partaidetzaren kasuan, ez da partaidetza inklusiboa izango.
- 1.2. Kolektibo konkretu batzuek oztopo gehiago aurkitu dituzte noizbait partaidetza prozesuetan egoteko.
2. Abadiñoako herritarrek espazio publikoan parte-hartzeagatik dituzten bizi onurak aztertzea.
 - 2.1. Espazio publikoaren degradazioak zaildu egiten du herritarren arteko kohesioa eta ondorioz, partaidetza dinamikak zailtzen ditu.
 - 2.2. Herritarren partaidetza onuragarria da pertsonen bizi kalitaterako.
 - 2.3. Segurtasun sentipenak eragina du pertsonen bizi kalitatean eta partaidetzan.
3. Partaidetza hobetzeko gakoak identifikatzea ikuspegi inklusibotik.
 - 3.1. Ikerketako partaideek egoera eta espazio ez inklusiboak identifikatuko dituzte.
4. Abadiñoako espazio publikoaren inguruan abadiñarrek duten pertzepzioa ezagutzea.
 - 4.1. Espazio publikoaren inguruko pertzepzioa ezberdina izango da auzotik auzora.
 - 4.2. Espazio publikoak partaidetza prozesuak baldintzatzen ditu.

3. METODOLOGIA

3.1. Diseinua

Ikerlanean erabiliko den diseinu metodologikoa mistoa izango da, kuantitatibo-kualitatiboa. Arlo deskriptiboa eta korrelazioak bilatu dira. Kuantitatiboki aztertu dira partaidetza, inklusioa, espazio publikoaren degradazioa eta bizi kalitatea. Kualitatiboki partaidetza, umeen parte-hartzea eta espazio publikoaren eboluzioa aztertu dira.

3.2. Partaideak

Ikerlan honetan 18 urtetik gorako 107 abadiñarrek parte-hartu dute. Partaideen %43,9 (n=47) 18-29 urte bitarteko gazteak dira. %25,2 (n=27) 30-41 urte bitarteko helduak dira. %21,5 (n=23) 42-53 urte bitarteko helduak dira. %5,6 (n=6) 52-64 urte arteko helduak dira. Azkenik, partaideen %3,7 (n=4) pertsona nagusiak dira. Sexu identitateari dagokionez, %65,4 (n=70) emakumeak dira eta %34,6 (n=37) gizonak. Jaioterriari erreparatuz gero, %58,9 (n=63) Abadiñon jaiotakoa da, %14 (n=15) Durangaldeko beste herri batean jaioa, %15 (n=16) Bizkaiko beste eskualde batean, %7,5 (n=8) Gipuzkoan, %0,9 (n=1) Araban, %0,9. Jaioterria Euskal Herritik kanpo dutenen artean, %0,9 (n=1)

Espainian jaioa eta azkenik, %0,9 (n=1) Hego Amerikan. Galdetegia bete dutenen artean, %29,9 (n=32) Zelaieta auzoan bizi dira, %25,2 (n=27) Muntzaratz auzoan, %31,8 (n=34) Traña-Matienan eta %13,1 (n=14) landa-guneko auzo batean. Aniztasun funtzionalari dagokionez, %1,9ak (n=2) aniztasun funtzionala edo desgaitasunen bat dauka. Partaideen artean, %33,6ak (n=36) umeak edo mendekotasunen bat duen pertsona bat zaintzearen ardura du.

3.3. Datuak eskuratzeko tresna

Ikerketa lan honen helburua Abadiñoko herritarren partaidetzak espazio publikoarekin duen erlazioa, inklusibotasunean, bizi kalitatean eta segurtasun sentipenean dituen ondorioak aztertzea da. Erabilitako tresna ad hoc galdetegia da. Zenbait galdetegi kontsultatu ziren arren, ez zen errealitatera ongi egokitzen zen galdetegirik aurkitu. Hurrengoak izan ziren kontsultatutako galdetegiak: “Gazteak eta parte-hartze soziala Euskadin” (Bilbao, Corcuera, Longo, eta González, 2015), “Osasuna eta hiri-garapen jasangarria. Tokiko hirigintza-jarduerak osasunean zer eragin daukaten aztertzeko gida praktikoa” (Udalsarea21, 2014) eta “Encuesta a la población navarra sobre participación ciudadana” (CIES, 2017). Ondorioz, aipatutako galdetegietan oinarrituz, errealitatera egokitutako ekoizpen propioko galdetegia sortu zen GRAL honetan erabili asmoz.

Horretarako, aldagaien inguruan marko teorikoan egindako ekarpenak barne hartzen dituen eta tokiko errealitatera egokitutako 24 galderaz osaturiko galdetegia osatu da. Galdetegia 19 galdera itxik eta bost irekik (13.1.G, 15.1.G, 22G, 23G eta 24G) osatzen dute. Galdera irekien artean, 13.1.G eta 15.1.G galderek badute berezitasun bat, izan ere, aurreko galderan “Beste bat” erantzun dutenek beraien erantzuna zehazteko eskatzen da.

1G-10G galderak partaideen ezaugarriak jasotzeko dira (sexua, adina, jaioterria e.a.). 12G, 13G, 13.1.G eta 22G galderek herritarren partaidetzaren nolakotasunari egiten diete erreferentzia. 14G, 15G, 15.1. galderek ez parte-hartzearen zergatiak aztertu nahi dituzte. 16G, 18G eta 23G galderek partaidetza espazioetako inklusibotasuna aztertzea dute helburu. 17G partaidetzak bizi kalitatean duen eragina aztertu nahi du. 19G-21G eta 24G galderek herriko espazio publikoaren inguruan abadiñarrek duten pertzepzioa ezagutzea

dute helburu. Erantzun dikotomikoak erabili dira gehienbat, bai/ez erantzutekoak, eta zenbait galderatan “batzuetan” edo “ez dakit” aukera gehitu da. Horrez gain, hainbat galderatan, “beste bat” aukera zehaztu ahal izateko galdera irekia jarri da. Galdetegia 10-15 minututan bete daiteke.

3.4. Prozedura

Hasteko, garrantzitsua izan zen marko teorikoaren osatzea, bertan artikuluko zientifikoaren bidez adituek egindako ekarpenak jasoaz, ikergai funtsezkoak ziren alderdiak ezagutu ziren. Galdetegia egikaritzean, teoriak aipatzen zituen puntuak galderetara eraman ziren. Horrez gain, kontzeptu batekin izandako zalantza dela medio, adituengana jo zen. “Arrazializatu” terminologiaren erabilera egokia egin ahal izateko SOS Arrazakeria erakundera idatzi zen. Behin terminoa egokia zela baieztatuz eta beraien gomendioari jarraituz, galdetegian bertan kontzeptuaren azalpena egitea erabaki zen.

Aipatzekoa da baita, hasiera batean koherentziagatik ikerketa umeen partaidetzarekin ere egin nahi zela, alabaina, zenbait irakasle adituk esan bezala, zailtasun handia suposatuko zukeen ikerlan honetan. Ondorioz, galdetegia adin nagusikoen artean zabaltzea erabaki zen. Galdetegian bertan argi adierazi zen 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erreglamendu Orokorrean oinarritutakoa eta bertan xedatutakoa betez, galdetegiaren bidez lortutako datu pertsonalak partaidearen baimenarekin tratatuko zirela, sustapen- eta hedapen-zientifikoaren helburu eskusiborako.

Behin Google Forms aplikazioaren bidez galdetegia osatuta, 23 urteko emakume bati lehen proba egiteko eskatu zitzaion galdetegia ulergarria zela ikusteko. Ondoren, hedapenera jo zen. Zabalkundea 2021eko martxoaren 4an egin zen Whatsapp, Instagram eta Facebook sare sozialen bidez, bide hauetatik jasotako datuen kontrol zehatza egitea ezinezkoa da, hala ere, tresna hauen bidez Abadiñoko kolektibo eta elkarte ezberdinetara iristea lortu zen.

3.5. Datuen analisia

Ikerlan honetan, galdera itxietatik eratorritako datuak kuantitatiboki aztertu dira eta galdera irekietatik eratorriak aldiz, kualitatiboki. Hasteko, Excel aplikazioa erabili zen, Google Forms-eko datuak sailkatu eta zenbakitzeko, ondoren PSPP IRE.exe (GNU pspp 1.4.1-g79ad47) aplikazioan, datuen analisirako software librekoa, erabili ahal izateko (GNU Operating System, 2020). Analisi deskriptiboa erabili da, frekuentzia taulak eta taula gurutzatuak, chi karratuak. Arlo kualitatiboan, emaitza guztiak irakurri eta multzo ezberdinetan sailkatu ziren, kategoria ezberdinak sortuz, kasu batzuetan azpikategorizazioa egin zen, kategoria batzuen barruan joera ezberdinak aurkitu baitziren.

4.EMAITZAK

Jarraian emaitzak mahaigaineratuko dira, lehenik azterketa kuantitatiboaren inguruan hitz egingo da eta, ondoren, alde kualitatiboari buruz jardungo da.

4.1. Esparru kuantitatiboa

Hurrengo emaitzetan item bakoitza aztertu da, kasu batzuetan galdera osoa aztertu arren, aldagai bakoitzaren barneko erantzunak aztertzea nahi da. Esaterako, bizi kalitatea orokorrean aztertzeaz gain, bizi kalitatearen baitan eragina duten esparruak aztertu nahi dira, bizi kalitatea alderdi askok baldintzatzen baitute.

4.1.1. Partaidetza

Hasteko, herritarrei Abadiñon parte-hartzen al duten galdetuta, baiezkoa %79k (n=85) eta %21ek ezezkoa (n=22) erantzun du. Hala ere, hurrengo galderetako erantzunak ikusita, ezezkoa esan duten batzuek, hasiera batean ez dituzte jarduera batzuk partaidetzarekin identifikatu, hau da, parte-hartzen ez dutela esan ondoren, zenbait esparrutan parte-hartzen dutela esan dute. 1. Grafikoan ikus daitekeen bezala, pertsona batzuek proposatutako hamahiru partaidetza esparruetatik erdia baino gehiagotan parte-hartzen dute (%3,85ek, n=4, bederatzi esparru ezberdinetan parte hartzen du), beste batzuek aldiz, ez dute jarraikortasunez inon parte-hartzen (%6,73, n=7) (Ikus 1. Eranskina: 1. Grafikoa). Horrez gain, ikasketen arabera partaidetza altuagoa dela ikusi da. Oinarrizko

ikasketak dituztenen %54,5ak (n=6) parte-hartzen du, Batxilergoa edo lanbide heziketa egin dutenen %68,6k (n=24) eta unibertsitate ikasketak dituztenen %90,2k (n=55).

Partaidetza esparruak banaka aztertuz, arrakastatsuenak bozka ematea (%88,8, n=95), manifestazio eta elkarretaratzeetara joatea (%53,3, n=57), auzokideak laguntzea (%46,7, n=50) eta elkartegintza (%41,1, n=44) izango lirateke (ikus 1.Eranskina: 3. Grafikoa).

Parte-hartzen ez dutenen artean, zergatiagatik galdetuta, norbere burua gai ez ikustea edota interes falta nabarmendu dira (Ikus 1. Eranskina: 4. Grafikoa). Horrez gain, denbora falta, zaintza lanak eta herritarren ahotsa ez entzutea ere aipatu dira.

Hari beretik, partaidetza espazioak uzteko arrazoen artean, denbora falta (%73,83, n=79) eta ordutegia (%44,85, n=48) izan dira arrazoi nagusiak, lan karga handia (%40,19, n=43) ere denboraren eta lanaren banaketa ekitatibo ezaren lerroan kokatu daiteke (Ikus 1. Eranskina: 5. Grafikoa).

Errespetu faltak sexuarekin erlazionatu eta gero, ikus daiteke erlazio bat dagoela, $X^2=8,66$; $p>.003$. Gizonezkoen %16,2k (n=6) irainak jaso dituela adierazi du, emakumeen artean, %1,4k (n=1). Denbora falta eta sexuaren artean ere erlazio bat eman da, $X^2=3.12$; $p>.046$. Gizonezkoen kasuan %62,2k (n=23) eta emakumezkoen %80k (n=56) denbora falta somatzen dute.

Horrez gain, norbere ahotsak kide batzuenak baino gutxiago balio izateak adiarekin duen erlazioa ikus daiteke $X^2=12,07$ $p>.017$, 18-29 urte bitarteko gazteen %53,2k (n=25) beraien ahotsak balio txikiagoa izan duela sentitu dute, hau erantzun duten 39 pertsonen %64,1, hain zuzen.

Jarraitzeko, partaideen %32,7k haurren edo pertsona nagusien zaintzarengatik espazio bat utzi du: 30-41 urte bitarteko pertsonen %44,4k (n=12), 42-53 urte bitartekoaren %82,6k (n=19), 54-64 artekoen %50ak (n=3) eta 65etik gorakoaren %25ak (n=1). Balio estatistikoa $X^2= 51,48$; $p>.001$ da. Generoari dagokionez, aipatzekoa da baita, galdetegia bete dutenen artean, gizonezkoen %24,3k (n=9) eta emakumezkoen %38,6k (n=27) dutela ume edo mendekotasunen bat duen pertsona bat zaintzeko ardura. Era berean, ume edo mendeko pertsonak zaintzearen ardura duten pertsonen eta haurren eta pertsona nagusien zaintzaren artean ere erlazioa ikusi da $X^2=41,23$ $p>.001$. Umeak edo mendeko

pertsonak zaintzaren ardura dutenen %75ak (n=27) partaidetza espazioa utzi du haurren eta pertsona nagusien zaintzagatik.

Beste gai bati helduz, auzoak eta partaidetza lekura heltzeko garraio bide ezaren arteko erlazioa aurkitu da $X^2=20,50$, $p>.001$. Garraiorik ez izateagatik parte-hartu ezinik geratu direla erantzun duten bakarrak landagunean bizi direnenak izan dira (%21,4, n=3).

4.1.2. Inklusioa

Inklusioari dagokionean, parte-hartze esparruetan hurrengo ezaugarriak dituzten pertsonak izan ohi dira gehiengoa: emakumezkoak (%56), gizonezkoak (%45,8), bertan jaioa (%60,7), pertsona zuria (%55,5), helduak (%60,7) eta gazteak (%46,7) izan dira gehien errepikatu direnak.

Genero ikuspegitik, emakumeek gizonek baino zailtasun gehiago dituztela partaidetza espazioetan jarduteko esatearekin %43,9 (n=47) ados dago eta beste %43,9a ez. Era berean, partaidetza dinamikak maskulinoak direla soilik %33,6k dio (n=36). Aniztasun funtzional kognitiboa duten pertsonen kasuan, herriko erabakietan parte hartzea ondo iruditzen zaio %76,6ri (n=82). Deigarria da baita, partaideen %24,3k (n=26) partaidetza esparruan bazterkeriarik ez dagoela uste duela. (Ikus 1. Eranskina: 7. Grafikoa).

Umeen kasuan, beraien iritzia ematea %79,4ri (n=85) ondo iruditzen zaio, aldiz, umeek erabakiak hartzea, %51,4ri (n=55). Umeek edozein gairen inguruan beraien iritzia ematea ongi iruditzearen eta sexuaren erlazioa aztertuz, gizonezkoen %24,3 (n=9) ez dago ados eta emakumezkoen kasuan, %8,1 (n=5). Hurrengo datu estatistikoak ere esanguratsuak dira $X^2=5,05$ $p>.025$. Beraz, emakumeek prestutasun handiagoa erakusten dute umeen iritzia entzuteko orduan.

Jarraitzeko, gai batzuen inguruan soilik adituek erabaki beharko luketela uste du %15ek (n=15), gizonezkoen %25,7k (n=9) eta emakumezkoen %9,2k (n=6). Erlazioa esanguratsua izan da, $X^2=3,64$ $p>.028$.

Inklusioaren bidetik jarraituz, gurpildun aulkian egonik jaietan parte-hartzeko arazorik ez izatearen ideia eta adina erlazionatuz gero datu esanguratsuak aurkitu dira, $X^2=11,49$, $p>.022$. 65 urtetik gorakoek %66,7ak (n=2) eta 54-64 urte bitartekoek %75ak uste du gurpildun aulkian egonik ez zukeela parte-hartzeko arazorik izango. 42-53 urte

bitartekoen %80ak (n=16), 30-41 urte bitartekoen %88,9k (n=24) eta 18-29 urte bitartekoen %73,5ak (n=25), aldiz, arazoak identifikatu dituzte gurpildun aulkian mugitzeko. Generazioen arteko ikuspegi ezberdina ikus daiteke kasu honetan.

Inklusioa eta espazio publikoa lotuz, kalean eserlekuen falta ere nabaritzen dute batzuek (%49,5, n=53). Azpimarratzekoa da sexuari dagokionez, kaleko eserleku faltarekiko kezkarekin erlazioa dagoela, $X^2=11,46$, $p>.001$. Emakumeen %61,4k (n=43) eta gizonezkoen %27k (n=10) eserleku faltarengatik kezka adierazi dute, hau da, emakumeek gehiago nabaritzen dute eserleku falta. Hari beretik, ume eta mendeko pertsonen zaintzaren ardura dutenek kezka adierazten dute eserleku faltarengatik, $X^2=4.47$; $p>.034$. Zaintzaren ardura dutenen %63,9k (n=23) kezka adierazi du, horrelako ardurarik ez dutenen artean aldiz, %42,3koa (n=30) da kezka. Kontuan izatekoa da hasieran esan bezala ikerketako partaideen artean zaintzaren ardura dutela adierazi duten emakume gehiago daudela gizonezkoak baino.

Paseatzen dabiltzanean esertzeko jesarleku nahikoaren inguruan galdetzean adinarekin erlazioa aurkitu da $X^2=9,82$ $p>.044$. 18-29 urte bitartekoen artean %55,3k (n=21), 30-41 artekoen %54,2k (n=13), 42-53 artekoen %22,2k (n=4), 54-64 artekoen %33,3k (n=2) eserleku nahikoa daudela uste dute, aldiz, 65etik gorakoen artean inork ez du uste eserleku nahikorik dagoenik. Beraz, adinean gora doazenek, gehiago nabaritzen dute eserleku falta. Arazo bera auzo bakoitzaren perspektibatik aztertuz, erlazio esanguratsua ikus daiteke $X^2=8,93$ $p>.030$. Landa eremukoen %64,3k (n=9), Zelaietakoen %46,2k (n=12), Traña-Matienakoen %75ek (n=21) eta Muntzaratzekoen %36,4k (n=8) eserleku nahikorik ez dagoela erantzun dute. Horrenbestez, eserleku falta handiena landagunekoen eta Traña-Matienakoen artean somatzen da.

Amaitzeko, partaidetza publikoko dinamikak oso maskulinoak izatearen ideiarene eta ume edo mendeko pertsonak zaintzearen ardura duten pertsonen arteko erlazioa esanguratsua dela ikusi da $X^2=5,98$; $p>.014$. Ume edo mendeko pertsonaren bat zaintzeko ardura duten pertsonen %75,9k (n=22) uste du partaidetza publikoko dinamikak ez direla maskulinoak, halako zaintza ardurarik ez dutenen artean %48,2k (n=27). Hari beretik, emakumeek espazio publikoan jarduteko gizonezkoek baino zailtasun gehiago dituztela esatearekin ere lotura ikusi da $X^2=9,03$; $p>.003$,. Ume edo mendekotasunen bat

duten pertsonak zaintzearen arduradun direnen %70,6 (n=24) ez dago ados emakumeek zailtasun gehiago dituztela esatearekin, aldiz, ardura hori ez dutenen artean, gutxiago izan dira desadostasuna erakutsi dutenak (%38,3, n=23).

4.1.3. Espazio publikoaren degradazioa

Jarraitzeko, herritarren artean plaza eta parkeen egoera okerrak kezka sortzen du (%67,29, n=72), tokiko leku/eraikinen suntsiketak edo degradazioak (%86,91, n=93), espazio publikoaren pribatizazioak (%85,05, n=91) edo terrazen espazioa handitzeak (%35,51, n=38) baita (Ikus 1. Eranskina: 8. Grafikoa). Era berean, esanguratsua da kutsadurak %85 (n=91) eta berdeguneen desagerpenak kezka handia sortzen dutela %85 (n=91).

Horrez gain, umearen karroarekin edo gurgildun aulkian mugitzeko arazoak aurkitu ditu %55ek (n=59). Esanguratsua da baita, partaideen %56k (n=60) espazioren batek pertsonalitatea galdu duela uste duela. Herriko eraikinen egoera txarra dela uste du gehiengoak (%64,5, n=69). Komun publikoei dagokionez, %93,5ak (n=100) uste du ez dagoela komun publiko nahikorik herrian (Ikus 1. Eranskina: 9. Grafikoa).

Beste gai bati helduz, auzo ezberdinak eta auzoko garbiketaren arteko erlazioa ikusi ahal izan da $X^2=9,77$ $p>.021$. Landagunekoen %64,3k (n=9), Zelaietakoen %42,9k (n=12), Traña-Matienakoen %72,4k (n=21) eta Muntzaratzekoen %34,6k (n=9) auzoko garbiketa ona ez dela erantzun du. Landagunean eta Traña-Matienan, beraz, garbiketa arazoak antzeman dituzte herritarrek.

4.1.4. Bizi kalitatea

Jarraian, espazio publikoa eta herriko bizi kalitatea aztertzerako joko da. Bizi kalitatearen ildotik, gogoratu beharra dago ingurumenak edota arlo sozio-ekonomikoak ere eragina dutela. Abadiñarrek hurrengo kezka maila adierazi dute bizi kalitateari eragiten dieten parametroen inguruan:

Abadiñarrei mahaigaineratutako bizi kalitatearen adierazle diren hamalau esparruen artean, %18,69k (n=20) hamahiru esparru kezkarri identifikatu ditu. Partaideen %6,54

(n=7) arlo guztiengatik kezkatuta dago, eta denak ala denak gutxienez hiru esparrurengatik kezkatuta daude (Ikus 1. Eranskina: 2. Grafikoa).

Zehatzago aztertuz gero, abadiñarrei herriarekiko dituzten kezken inguruan galdetuta, komertzio txikiaren desagerpenak (%99,1, n=106) eta langabeziak (%94,4, n=101) sortzen dute kezkarik handiena, honi loturik, supermerkatu handien ezartzea ere kezkgarria da herritarrentzat (%76,63, n=82). Etxebizitzaren esparruan, erosteko aukera ezak (%76,63, n=82) eta alokatzeko aukera ezak (%71,96, n=77) buruhausteak sortzen dizkie abadiñarrei. Azterketa zehatzagoa eginik, etxebizitza bat alokatzeko aukerarik ez izatea eta adina erlazionatzen badira, bien arteko lotura ikus daiteke $X^2=14,67$, $p>.005$. 18-29 urte bitartekoen artean %85,1 (n=40), 30-41 artekoen %74,1 (n=20), 42-53 artekoen %43,5, 54-64 artekoen %83,3 (n=5) eta 65etik gorakoen artean %50 (n=2). Ikus daitekeenez, gazteenen artean edota gazteen guraso izan daitezkeenen artean kezka handiagoa da alokairuarekiko.

Atalarekin bukatuz, auzoak eta auzoetako garraio publikoaren maiztasunaren arteko erlazioa ere agerikoa dela aipatu behar da, $X^2=29,33$, $p>.000$. Landagunean bizi direnen %85,7k (n=12), Zelaietakoen %27,6 (n=8), Traña-Matienakoen %9,1ek (n=3) eta Muntzaratzekoen %22,2k (n=6) uste du garraio publikoaren maiztasuna ez dela ona. Horrenbestez, landagunean garraio publikoaren gabezia asko nabaritzen da beste auzoen aldean, landaguneko pertsonak herrian zehar mugitzea eta beste pertsona batzuekin harremantzea zailduz.

4.1.4.1. Segurtasun pertzepzioa

Bizi kalitatearen baitan segurtasun pertzepzioak ere garrantzia berezia du. Alde batetik, garrantzitsua da norbere herrian seguru sentitzea libreki mugitzeko, eta bestetik, seguru sentituta herrian parte-hartzea errazagoa delako.

Abadiñon ume edo mendeko pertsonen zaintzaren ardura duten pertsonen %69,4 (n=25) segurtasun ezarengatik kezkatuta dago, zaintza ardura hori ez dutenen artean aldiz, %43,7 (n=31), $X^2=6,37$ $p>.012$.

Hari beretik, partaideen gehiengoa ez du seguruago sentiarazten segurtasun kamera batek %71,96 (n=77). Abadiñarren gehiengoa egunez kalera irteteen seguru sentitzen da

%93,46 (n=100), gauez aldiz, segurtasun sentipena asko jaisten da, %60,75era (n=65), hain zuzen. Gaueko segurtasun pertzepzioa sexuka aztertuz, emakumeen %42,6 (n=26) ez da seguru sentitzen, gizonezkoetan, aldiz, %9,1 (n=3). Sexuaren eta segurtasun pertzepzioaren arteko erlazioa argia da $X^2=11,29$, $p>.001$ (Ikus 1. Eranskina: 9. Grafikoa). Norbere auzoaren inguruan galdetuta, %29,7 (n=30) ez da seguru sentitzen gauez kalean. Sexuari dagokionez, gizonezkoen %14,3 (n=5) eta emakumezkoen %37,9 (n=25) ez da seguru sentitzen. Horrez gain, estatistikoki esanguratsuak diren datuak ikus daitezke, $X^2=5,02$ $p>.014$. Hau da, argi dago sexuaren eta kaleko segurtasun pertzepzioaren arteko lotura dagoela, emakumezkoek segurtasun gabezia handiagoa nabaritzen.

Horrez gain, partaideen gehiengoak %67,29 (n=72) umeak eskolara bakarrik joatea segurua dela uste du. Hala ere, desberdintasuna ageri da umeen zaintzaren ardura dutenen eta ez dutenen artean, $X^2=5,21$ $p>.022$. Zaintzaren arduradun direnen %32,4k (n=11) ez dela segurua uste du, umeen zaintzaren ardurarik ez dutenen artean, berriz, %12,5ek (n=7).

Herriko espazioari erreparatuz argiztapen eskasa dagoela deritzo gehiengoak (n=75). Argiztapen eskasa eta sexua erlazionatuz, emakumeen %82,9k (n=58) eta gizonezkoen %45,9k (n=17) kezka adierazi dute. Hurrengo datuek erlazioa adierazten dute: $X^2=15,73$, $p>.001$. Emakumezkoek beraz, argiztapen eskasarekiko kezka handiagoa adierazten dute gizonezkoek baino. Berdin gertatzen da ume edo mendeko pertsonen zaintzaren ardura dutenekin, $X^2=4,54$ $p>.033$ erlazioa esanguratsua dela. Zaintza ardura dutenen kezka %83,3koa da (n=30), gainontzekoena berriz, %63,4koa (n=45).

Trafikoari lotutako segurtasunari begiratuz gero, partaideen %57k (n=61) kotxeak bizkorregi dabilzala deritzo eta %58,9k (n=63) uste du ezin daitekeela bizikletaz beldurrik gabe herrian zehar ibili (Ikus 1. Eranskina: 9. Grafikoa). Bide beretik jarraituz, kotxeak bizkorregi dabilzala uste dutenen eta zaintzaren arduradun direnen arteko erlazio estatistikoa ere nabaria da $X^2=8,04$ $p>.005$. Zaintzaren arduradunen %82,4k (n=28) uste du kotxeak bizkorregi dabilzala, ardura hori ez dutenen artean, berriz, %53,2k (n=33). Auzoan kotxeak bizkorregi dabilzala uste dutenen eta adinaren arteko lotura ere badago $X^2=11,44$, $p>.022$. 18-29 urte bitartekoaren artean %41,9k (n=18), 30-41 artekoen %76,2k

(n=16), 42-53 artekoen %77,3k (n=17), 54-64 artekoen %66,7k (n=4) eta 65etik gorako artean %75k (n=3) kotxeak bizkorregi dabilzala uste du. Beraz, gazteen gehiengoak uste du kotxeak ez doazela bizkorregi.

Amaitzeko, bizikletaz kotxeen beldurrik gabe auzoan zehar ibiltzeak adinarekin lotura erakutsi du, $X^2=15,91$ $p>.003$. 18-29 urte bitarteko artean %70,5ak (n=31), 30-41 artekoen %44k (n=11), 42-53 artekoen %30,4 (n=7) eta 54-64 artekoen %33,3k (n=2) uste du bizikletaz lasai ibil daitekeela, 65 urtetik gorako artean aldiz, inork ez. Beraz, pertsona nagusienek segurtasun gabezia ikusten dute arlo honetan.

4.1.4.2. Partaidetzak bizi kalitatean dituen onurak

Ikerketako partaideen artean herrian parte-hartzeak bizi kalitatean onurak dituela ikusi da. Ikaskuntza eta hezkuntza prozesuak bizitzen dira: gai ezberdinen inguruan ikastea (%91,59, n=98) edo herriko gertakariak beste modu batean ikustea (%78,5, n=84). Osasunean ere eragin positiboa duela ikusi da, zehatzago, isolamenduaren aurreko eta bazterkeria egoeren aurreko prebentzioan: etxetik gehiago irten (%52,34, n=56), jendez inguratuta seguru sentitu (%70,09, n=75), pozik sentitu (%86,91, n=93) eta normalean harremanduko ez ziren pertsonekin harremantzeko balio izan die (%79,44, n=85).

Gainera, partaidetzan jarduten dutenek pertenez sentimendua edo talde baten kide izatearen sentipena erakutsi dute: harro sentitzen dira herrian (%79,44, n=85) eta auzoan bizienez (%79,44, n=85), taldearen parte sentitu dira (%84,11, n=90), erabakimena dutela sentitu dute (%57,01, n=61), zerbait aldatzea lortu dute (%63,55, n=68) eta herrian zerbait eraldatzeko lan egin dutela sentitu dute (%67,29, n=72) (Ikus 1. Eranskina: 6. Grafikoa).

Azkenik, partaidetzaren bidez, normalean egoten ez diren pertsonekin harremantzeak sexuarekin erlazioa duela ikusi da. Emakumezkoen artean harreman sarea handitzeko balio izan diela ikusi ahal izan da. Emakumezkoen %85,7rentzat (n=60) harreman sarea handitzeko garrantzitsua izan da partaidetza, gizonezkoen artean, berriz, %67,6rentzat (n=25). Datu estatistikoak hurrengoak dira $X^2=4,88$ $p>.027$.

4.2. Esparru kualitatiboa

Esparru kualitatiboan hiru gako landu nahi izan dira, lehenik eta behin, pertsona bakoitzak partaidetza nola ulertzen duen jakin nahi izan da. Bigarrenik, umeen partaidetzaren inguruan abadiñarrek duten iritzia jaso nahi izan da. Azkenik, Abadiñoeko espazio publikoak egindako eboluzioaren inguruko ikuspegia eskuratu da.

4.2.1. Partaidetza

Parte-hartzeari dagokionez, hiru kategoria bereizi dira, iritzia ematea, erabakimena izatea, eta partaidetza komunitarioa.

4.2.1.1. Iritzia ematea

Partaidetza iritzia ematearekin lotzen dutenen artean, beraien nahiak plazaratzeko espazioa eskatzen dute eta baita aintzat hartzea ere, hala ere, ez dute erabakimena aipatzen, ondorioz iritziek ez dute herriaren nahia egikaritzea bermatzen. Partaidetza herritarrek iritzia ematearekin lotzen dute.

E60: “Herritar bezala herrian dauden baliabide eta gaien inguruan iritzia emateko aukera egotea eta iritzi horiek kontutan hartzea, helburu finko batekin, Abadiño hobetzea izango zena”

4.2.1.2. Erabakimena

Bigarren kategorian, erabakimenari lotuta dago, kasu honetan herritarrek erabakiak hartzea lotzen dute partaidetzarekin. Kategorian honen barruan batzuek “erabakimena osotasunean” izatea bezala definitzen dute partaidetza, herritarren artean erabakiak hartzea:

E75: “Era batean edo bestean, gainontzeko herritarrekin gauzak erabakitzeko eta antolatzeke jarduna”

Erabakimenari lotutako kategorian beste talde batek erabakimena bozka bidez lortzearekin lotzen dute:

E7: “El derecho a votar sobre diferentes factores que competen al ciudadano/a respecto al pueblo”

4.2.1.3. Parte-hartze komunitarioa

Azkenik, parte-hartze komunitarioa kategorian legoke, parte-hartzea komunitateari loturik ulertzen dute, herrian talde edota ekimen ezberdinetan jardutea, hain zuzen. Horietatik

batzuk “parte-hartze aktiboa” azpikategoria osatuko lukete, herria hobetzeko herritarren arteko elkarlana hartzen du ardatz, herritarrek prestutasuna erakusten dute antolakuntzarako.

E63: “Herriari nire zatitxo bat ematea, dena hobetzeko”

Kategoria berean, “besteek antolatutakoan parte hartzea” azpikategoria ere ikus daiteke, herritarrek jada antolatuta dauden ekintzetan jardutea aipatzen dute.

E78: “Ekintzetan parte hartu. Herriko jendearekin erlazionatu. Herriko komertzioetan kontsumitu”

Azken azpikategoria bezala, zenbaitek partaidetza eraldaketarako gogoarekin edota komunitatearen parte sentitzearekin identifikatu du:

E57: “Herriarekiko inplikazio txiki bat sentitzea eta gauzak aldatu daitezkeenaren konbentzimendua izatea. Eraldaketa gogo bat”.

4.2.2. Umeen parte-hartzea

4.2.2.1. Umeek parte-hartzeko eskubidea

Hasteko, lehen kategoriak umeek parte hartzeko eskubide osoa dutela adierazten du, modu honetan lerratu direnek umeen iritzia aberasgarritzat hartzen dute eta umeak hiritar oso bezala ikusten dituzte. Horrez gain, zenbait gako ematen dituzte umeen partaidetzarako, esaterako, umeek ulertzeko moduko azalpenak ematea.

E84: “Bai, izan beharko lukete. Helduak bezala haurrak ere herriko bizilagunak dira eta helduen iritzia kontatzen duen moduan haurrenak ere kontuan hartu beharko liriteke, honela haurrentzako egokia eta segurua izango den herri bat sortuz. Haurrentzako segurua dena helduentzat ere seguruagoa da”.

4.2.2.2. Umeen iritzia entzutea, erabakimenik gabe

Bigarren kategorian kokatzen direnek umeen iritzia entzutea onuragarritzat jotzen dute, baina erabakimenik izan behar ez dutela nabarmenduz. Hau da, umeen ahotsa entzutea garrantzitsua da, baina erabakimena ez da beraien esku jarri behar.

E24: “Bai eta ez. Haien iritzia entzutea garrantzitsua dela uste dut baina ez dut uste erabakiak hartzerako orduan boturik izan beharko luketenik”.

4.2.2.3. *Umeek beraiei eragiten dieten arazoetan parte-hartzea*

Hirugarren kategoriari dagokionez, aipatzekoa da ikerketako partaideen zati garrantzitsua era honetan lerratu dela. Nahiko iritzi zabaldua izan da umeek beraiei eragiten dieten aferetan soilik parte-hartzeko eskubidea izan behar dutela (parkeen diseinua...).

E45: “Nik uste umiek hainbat gairen inguruen iritzia emoteko aukera izan beharko lukete (parkeak, aisialdia, eskola, euren nahiak/beharrak orokorrean), baña ez edozein gairen inguruen. Nire ustez 0-13 urteko tartean ez dekie arrazonamendu logikoa nahikoa garatuta edozein gairen inguruan berba eiteko. Adibidez, kale bat peatonalizau edo ez erabaki behar bada, eurek ez die gai modu kritiko batien erabakitzeko ez dabelako gai hori kontroletan. Azken finean euren egunerokotasuneko ardurak ez die hoiak”.

4.2.2.4. *Umeek ez parte-hartzea*

Azkenik, umeen parte hartzearen guztiz aurka agertu direnen kategoria dago, umeei ulermen, arrazoimen edota jakintza falta egozten zaie, besteak beste.

E26: “Ez, adin tarte horretako umiek, nire ustez, ez deukie gai konkretu batzuei aurre egiteko gaitasunik”.

4.2.3. **Espazio publikoaren eboluzioa**

Azken galderari helduz, bi kategoria bereizi dira, batetik, “aspektu positiboak” eta bestetik, “aspektu negatiboak”.

4.2.3.1. *Aspektu positiboak*

Lehenengoan, positibotzat jo dira konponketa lanak, jolastokiak estaltzea, peatonalizazioa, zuhaitzak mantentzea, eta estetika hobetzea.

E39: “Ondo, inguruko herrietako antzera, inguru batzuk peatonalizatu dira, parkeren bat ere, txintxaunak estali, plazako zuhaitzak mantendu....”

E35: “Azken urteotan sortutako aldaketak asko izan ez diren arren (ez nahikoa behintzat), uste dut nahiko ondo daudela, adibidez Ferialeku plaza edo Matienako Trañabarren kaleko espaloiak zabaltzea”

4.2.3.2. *Aspektu negatiboak*

Aspektu negatiboan kategorian, kudeaketa, hirigintza, norbanakoen pertzepzioa, gabeziak eta aspektu sozioekonomikoak aipatu dira. Herritarrek berdeguneak eskatzen dituzte, horrenbeste etxebizitza ez eraikitzea, komun publiko gehiago jartzea, kudeaketa

gardenagoa izatea, espazio publikoak ez pribatizatzea eta herritarren nahiak kontuan izatea besteak beste.

E70: “Berdeguneak gutxitu dira. Asfaltoa gailendu. Larregi markatu dira haurren jolasguneak. Herria bera izan beharko litzateke jolasgunea. Herritarren intransijenteagoak garela iruditzen zait. Ez ditugu besteen egoerak ikusten: haurrenak, nagusienak, familienak, aniztasun funtzionala dutenenak. 2Herri "amableago" bat egin daitekela uste dut. Horrek harremanetan ere izan dezake eragina eta”

E45: “Ba egixe da hobekuntzak egon direla, baña nire ustez ez dituzte herritarren beharrak erdigunean jartzen. Esaterako, komun publikoen ildora, Matixenan parke edo plazan baten txisagurea sartzen baiatzu, eztau doainiko komun publikorik, dana pasetan da kontsumoatik, taberna batera juen. Guroguz lora gitxiau ta komun gehixau”

5. ONDORIOAK

Emaitzetatik abiatuz, ondorioak mahaigaineratuko dira. Hasteko, “Abadiñoako partaidetzaren kasuan, ez da partaidetza inklusiboa izango” eta “kolektibo konkretu batzuek oztopo gehiago aurkitu dituzte noizbait partaidetza prozesuetan egoteko” hipotesiak baieztatu direla ikusi ahal izan da. Ikerketan parte-hartu duten abadiñarren gehiengoek herrian parte-hartzeko joera dutela ikusi da, hala ere, pertsona batzuek ez dute ia parte-hartzen eta aldiz, beste batzuek pila bat esparrutan dihardute. Ahedok eta Telleriak (2019) esan bezala, parte-hartzeak ez du karga bat izan behar eta egokiena denek ardura apur bat hartzea izango litzateke, beste batzuek horrenbeste hartu behar ez izateko. Hari beretik, zaintza lanen ardura izateak partaidetza baldintzatzen duela ikusi ahal izan da, gehienetan emakumeen gain izaten den ardura, horregatik, garrantzitsua da partaidetza esparruak zaintza lanekin uztartzeko mekanismoak abian jartzea, idealena zaintza lanen kolektibizazioa izango litzatekeen arren.

Auzoei erreparatuz, landa-eremuko auzoek herrigunearekiko komunikazio hobea behar dutela ikusi da, izan ere, garraio faltak askotan partaidetza espazioetatik at utzi ditu herritarrak. Horrez gain, partaidetzarako beste oztopo aipagarri bat denbora faltarena izan da. Ekoizpena lehen lerroan jarrita, partaidetza prozesuetara heltzea nekeza da sarritan. Sistemaren oztopo honi behin behineko soluzioa eman nahian, garrantzitsua izango da

partaidetza espazioen malgutasuna, bakoitzak ahal duena emateko aukera izatea, hain zuzen (Marchioni, 1999).

Bazterkeriarekin jarraituz, gazteek beraien ahotsa entzuten ez dela sentitzen dute, gutxietsita sentitzeak partaidetza prozesuekiko esperientzia negatiboak ekar ditzake, eta prozesu horietara hurbildu beharrean, urrundu. Horrez gain, gurpildun aulkian ibili behar duen pertsona batek zailtasunak izango ditu partaidetza espazioetara heltzeko herriko irisgarritasun faltagatik eta prozesuak planifikatzerakoan ez da kontuan izaten.

Beste batzuen ustez, umeek ez lukete erabakiguneetan zeresanik izan behar. Jasotako iritzien artean “arrazoimenik ez izatea” argudiatu du zenbaitek. Marchionik eta Morínek (2016) esan bezala, informazioa modu ezberdinetan eman behar da denentzat irisgarria izan dadin, horrenbestez, ume bati berak ulertzeko moduko azalpenak emanaz gero, ez luke bere ekarpena egiteko arazorik izango, galdu baino beste ikuspegi bat irabaziko litzateke. Gainera, umeen benetako nahiak kontuan hartzeko herritar oso bezala ikusi behar dira, orain arte helduen begiradatik eraiki baita herria. Hari beretik, etorkizunean herritar parte-hartzaileak nahi izanez gero eredu izateaz gain, umetatik eman behar zaie partaidetza prozesuetan aritzeko aukera. Esparru teorikoan Tonuccik (2013) esandakotik ondorioztatu bezala “partaidetza ezin daiteke irakatsi, bizi egin behar da”.

Aurreko atalean ikusi denez, herritarrek espazio publikoarekiko hainbat kezka adierazi dituzte. “Espazio publikoaren degradazioak zaildu egiten du herritarren arteko kohesioa eta ondorioz, partaidetza dinamikak zailtzen ditu” hipotesiak espazio publikoaren degradazioak partaidetzan duen eragina azpimarratzen du, izan ere, ikusi den bezala, herriko lekuen egoera eskasak bertan egoteko zailtasunak jartzen dizkie herritarrei, ondorioz, herritar ezberdinen arteko kohesioa zailduz.

Bizi kalitatea aztertuz, esparru sozioekonomikoan, ingurugiroari lotutakoan zein hirigintzakoan kezka handia adierazi dute herritarrek, aipatzekoak dira komertzio txikiarekiko, etxebizitzarekiko eta ingurugiroarekiko kezkak. Era berean, herritarren nahiak zeintzuk diren ikusi ahal izan da: berdeguneak izatea, zuhaitzak mantentzea, komun publiko gehiago jartzea, espaloiak zabaltzea, aterpeak izatea, argiztapena hobetzea, auzoen arteko komunikazioa hobetzea, garbitasuna indartzea, tokiko eraikin edo espazioen xarma mantentzea, eraikinen mantenua ona izatea, kontsumoarekin lotuta

ez dauden herritarrak egoteko espazioak izatea, kalean eserleku gehiago jartzea edota peatonalizazioa, besteak beste. Ekintza hauetako batzuek ez dute kostu handia suposatzen eta herritarren bizi kalitatea zein partaidetza hobetzen lagun dezakete. Esaterako, eserleku gehiago jartzea onuragarria izango da pertsona nagusientzako bereziki, baina herritar guztientzako azken finean, espazio publikoan eroso egoteko eta besteekin elkarrekintzan jarduteko laguntza izan daiteke. Inklusibotasunean eta pertsonen bizi kalitatean lagunduko luke. Honetarako, instituzioen prestutasuna eta herritarrak beraien nahiak adierazteko mobilizatzea ezinbestekoa izango litzateke.

Ondorioekin jarraituz, nabarmena izan da partaidetza prozesuetan jarduteak bizi kalitatean onura handia duela, “herritarren partaidetza onuragarria da pertsonen bizi kalitaterako” hipotesiak dioten bezala. Gizarte bazterkeriaren aurreko prebentziorako tresna indartsua izan daiteke, babes sarea, ikasketa prozesuak, atxikimendua eta norbere izateari zentzua ematen lagun diezaioke. Genero indarkeriaren aurreko prebentzioan eta identifikazioan lagun dezake, nerabeen garapenean, pertsona nagusien isolamenduaren aurkako prebentzioan e.a. Askotan gizarte-hezkuntzan prebentzioari ez zaio horrenbesteko garrantzia ematen, baina ahal izanez gero arazoari hazten utzi aurretik berau saihestea funtsezkoa da.

Jarraitzeko, bizi kalitatea baldintza dezakeen beste aspektu bat segurtasun sentipena da. Arlo honetan, “segurtasun sentipenak eragina du pertsonen bizi kalitatean eta partaidetzan” hipotesia bete dela ikus daiteke. Alde batetik, argi gelditu da, autoen, oinezkoen eta txirrindularien elkarbizitza ez dela nahi bezain ona, orokorrean autoen abiadura handiegia dela uste da. Umeen zaintzaren arduradun diren pertsonak bereziki, partaideen artean gehienak emakumeak, autoen abiadurarekiko kezka azaldu dute. Ondorioz, herrian zehar lasai mugitzea eta pertsona guztiek libreki parte-hartzea zailtzen da, alde batetik, benetako arriskua existitzen delako, eta bestetik, esaterako umeen arduradun direnek beldurra izan dezaketelako umeak herrian zehar bakarrik ibiltzeko. Beste alde batetik, segurtasun sentipenari dagokionean, genero desberdintasuna oso nabaria izan da. Emakumeak gauez ez dira seguru sentitzen herrian eta argiztapen

eskasarekiko kezka handia adierazi dute. Honek guztiak ondorioak ditu parte-hartze inklusiboan. Partaidetza espazioetako bazterkeria identifikatzea zaila egiten zaio gaur gaurkoz herritarren zati esanguratsuari, hala ere, ikusi bezala, bazterkeria egon badagoela ukaezina da. Izan ere, bazterkeriak ez du zertan esplizitua izan behar, emakumeak ez baldin badira seguru sentitzen espazio publikoan bazterkeria egoeraz hitz egin beharra dago, zailtasun erantsia da partaidetzarako.

Jarraitzeko, esan beharra dago bazterkeriak identifikatzeko orduan, partaideei errazagoa egin zaiela bakoitzak bizi dituen bazterkeria egoerak identifikatzea, besteek bizi dituztenak baino. Esaterako, umeak dituztenek kezka handiagoa adierazi dute hauen segurtasunarekiko, ez dituztenek baino. Norbere arazoei soilik so egiteak inklusioa zailtzen du, horregatik, partaidetza espazioen diseinuan ahots ezberdinak kontuan hartzeak inklusioan lagun dezake. Beraz, esan daiteke, "ikerketako partaideek egoera eta espazio ez inklusiboak identifikatuko dituzte" hipotesia erdizka bete dela, partaideek egoera eta espazio ez inklusiboak identifikatu dituzte, baina batez ere bakoitzak bere egoerari erreparatuz eta ez hain modu globalean.

Beste ondorio garrantzitsu bat, batez ere Abadiñoren nolakotasunarekin zerikusi handia duena, "espazio publikoaren inguruko pertzepzioa ezberdina izango da auzotik auzora" hipotesiarekin loturik dago. Esan bezala, Abadiñok hainbat auzo ditu eta denak herri bereko biztanleak izan arren, auzotik auzora desberdintasunak nabarmenak dira, batez ere landa eremuan bizi diren biztanleek zailtasun gehiago aurkitu dituzte herrian partaidetzan jardun ahal izateko, hasierako hipotesia baieztatuz.

Azkenik, argi gelditu da "espazio publikoak partaidetza prozesuak baldintzatzen ditu" hipotesia ere bete dela, izan ere, espazio publikoaren nolakotasunak partaidetza erraztu edo zaildu dezake, kontuan izanik, partaidetza pertsona guztiek eskura egon behar dela. Ondorioz, partaidetza prozesuetan espazioari ere garrantzia eman behar zaiola ikusi da, pertsona guztiek ez dezaten oztoporik izan partaidetza prozesuetara heltzeko eta bertan lasaitasunez aritzeko.

Horrenbestez, espazio publikoan parte-hartzeak badu bere garrantzia. Instituzioekiko kontrol maila altuagoa dute herritarrek, beraien ahotsak entzun daitezzen eta erabakimena

izatea eskatzen dute, gainera, espazio publikoan jarduteak espazio seguruagoak sortzea esan nahi du eta aipatu bezala jendartean bazterkeria egoera batzuk ekiditen lagun dezake. Kontua da denak prozesu horretan izateko aukera bermatu behar dela, baldintza egokiak jarri elkarrekintza errazteko, plaza hutsera heldu bitartean.

6. IKERKETAREN MUGAK, ZAILTASUNAK ETA ETORKIZUNEKO IKERKETA POSIBLEAK

Amaitzeko, ikerketak izandako mugak, prozesuan agertutako zailtasunak eta emaitzetatik zein esparru teorikotik eratorritako etorkizuneko ikerketak plazaratu nahi dira. Zailtasunetako bat lan akademikoa izanik, denbora tarte mugatua izatea izan da, izan ere, hasiera batean, umeak ere ikerketan kontuan hartzea zen helburua landutako teoriarekin koherentzia jarraituz, hala ere, osasun krisiak eta izandako denborak ez du zati hau egitea ahalbidetu. Horregatik, gutxienez, helduek umeen partaidetzarekiko duten prestutasun maila aztertu nahi izan da, alabaina, etorkizunean umeen iritzia ezagutzea garrantzitsua izango litzateke, batez ere, partaidetza prozesuetan egon daitezkeela ikusarazteko. Horrez gain, arrakala teknologikoa dela medio, pertsona nagusiek ez dute horrenbesteko partaidetza izan ikerketan, ondorioz, etorkizunean kolektibo honen ahotsa hobeto jasotzea onuragarria izango litzateke.

Azkenik, emaitzetan partaidetzaren onurak aztertuz, emakumeei bereziki partaidetzak harremantzeko eta normalean egoten ez diren pertsonekin sartzeko balio izan diela ikusi da. Ondorioz, beste ikerketa lerro posible bat partaidetza eta indarkeria matxistaren aurreko prebentzioa izango litzateke, indarkeria matxistaren aurrean harreman sareak eta konfiantzazko espazio seguruak oso garrantzitsuak baitira.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

2016/679 (EB) Erreglamendu Orokorra. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa.

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Abadiño Udalak. (2020). *2020 aurrekontu parte-hartzailerako prozesuko botazioaren emaitzak*. Abadiño: Abadiño Udalak.

Abadiño Udalak. (2020). *Informe de Piramide de Edades*. Abadiño: Abadiño Udalak.

Abadiño Udalak. (d.g.). *Turismoa: Datu orokorrak*. Berreskuratua Abadiño Elizateko Udaletik [2020/11/16]: <http://www.abadiño.org/eu-ES/Turismoa/Orrialdeak/default.aspx>

Ahedo Gurrutxaga, I. eta Telleria, I. (2019). CUIDADOS Y AUTODEFENSA COMUNITARIA. *XIV Congreso AECPA. Ciencia Política en la nueva política*. Universidad de Salamanca, Salamanca.

Anboto. (2020). *Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 2020*. Obtenido de Anboto: <https://anboto.org/hauteskundeak/eusko-legebiltzarrerako-hauteskundeak-2020/abadino>

Berroeta, H. (2012). *Barrio, espacio público y comunidad*. (Disertación doctoral inédita). Universidad de Barcelona, España.

Bilbao, M., Corcuera, N., Longo, O., eta González, F. (2015). *Gazteak eta parte-hartze soziala Euskadin*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

CIES. (2017). *Encuesta a la población navarra sobre participación ciudadana*. Nafarroako gobernua.

Elgueta, A. eta Morales, F. (2010). Los niños en la planificación del espacio urbano. En Sugranyes, A. eta Mathivet, C., *Ciudades para tod@s. Por el derecho a la ciudad, propuestas y experiencias*. (págs. 223-228). Santiago de Chile: Habitat International Coalition .

Euskaltzaindia. (2020). Herritar. In *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Berreskuratua [2020/01/11]:

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=herritarra&antzekoak=eز&option=com_hiztegiambilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu&bila=bai

Euskaltzaindia. (2020). Parte-hartze. In *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Berreskuratua 2020ko urriaren 11n: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=parte-hartu&antzekoak=eز&option=com_hiztegiambilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu&bila=bai

GNU Operating System. (2020). *PSPPIRE.exe* (GNU pspp 1.4.1-g79ad47) [A program for the analysis of sampled data]. Free Software Foundation. <https://www.gnu.org/software/pspp/>

Marchioni, M. (1999). *Comunidad, participación y desarrollo : teoría y metodología de la intervención comunitaria*. Madrid, España: Editorial Popular.

Marchioni, M., & Morín, L. (2016). La intervención comunitaria. *Comunidad*, 2(18), 2016.

Martínez Palacios, J., & Nicolas-Bach, J. (2016). Mujeres y democracia: ¿qué impide los proyectos de participación femenina?. *Revista mexicana de sociología*, 78(3), 497-527.

Páramo, P., Burbano-Arroyo, A. M., Jiménez-Domínguez, B., Barrios, V., Pasquali, C., Vivas, F., & Moyano, E. (2018). La habitabilidad del espacio público en las ciudades de América Latina. *Avances en Psicología Latinoamericana*, 36(2), 345-362. <http://dx.doi.org/10.12804/revistas.urosario.edu.co/apl/a.4874>

Patricia Posadas (2000). *Participación ciudadana, sociedad y educación: la participación ciudadana en el municipio de Donostia/San Sebastián* (Doctoral dissertation, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea).

Rueda, S. (2004). Habitabilidad y calidad de vida. *Cuadernos de Investigación urbanística*, (42).

Sarrionandia, J. (2015). *Lapur banden etika ala politika*. Iruña: Pamiela.

Schreiber, F., & Carius, A. (2016). Ciudades inclusivas: planeamiento urbano para la diversidad y la cohesión social. *Ciudades Sostenibles: Del Sueño a la acción*, 293-314.

Tonucci, F. (2013). *Haurren Hiria*. Arrasate: Txatxilipurdi.

Udalsarea21. (2014). *Osasuna eta hiri-garapen jasangarria. Tokiko hirigintza-jarduerek osasunean zer eragin daukaten aztertzeko gida praktikoa* (1.^a ed., Vol. 17). Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

